

“Eskubidea eta legea, hona hemen bi indar; berauen arteko adostasunetik sortzen da ordena, berauen arteko antagonismotik sortzen dira hondamendiak. Eskubideak egien gailurretik hitz egiten eta manatzen du; legeak errealitateen hondotik erantzuten du; eskubidea justua den hartan ari da, legea posible den hartan ari da; eskubidea zerutikakoa da, legea lurretikakoa da. Horrela, askatasuna, eskubidea da; gizartea, legea da. Horretarik bi tribuna: batean daude ideiazaleak, bestean daude egintzaleak; bata absolutua da, bestea erlatiboa da. Bi tribuna hauetan, lehena beharrezkoa da, bigarrena baliagarria. Batetik bestera, kontzientzien joan-jina. Oraino ez da lortu armonia sortzea bi botere hauen artean; bata aldagaitza da, bestea aldakorra; bata mazala da, bestea suharra. Legea eskubidetik dator, baina erreka iturritik datorren gisan, bihurtuneak eta bazterretako zikinak oro hartuz. Anitz aldiz, praktikak ukatu egiten du araua; anitz aldiz, ondorioak traizionatu egiten du baldintza; anitz aldiz, emaitzak ez du obeditzen kausa; halakoa da giza-izatearen patua. Legea eta eskubidea ahakarrean dira etengabe; eta beren eztabaidan galernak jotzen baitu maiz, argia bezala sortzen da ilunpea. Parlamentuko hizkera modernoan esaten ahal da: eskubidea, goi ganbera; legea, behe ganbera. Giza bizitzaren ukiezina, askatasuna, bakea; deus ez da ezin desegina, deus ez da ezin aldatua, deus ez da ezin konpondua; horixe da eskubidea. Urkamendia, ezpata eta agintari-makila, gerra, uztariaren aldaera guztiak, familian dibortziorik gabeko ezkontzatik hasi eta hirian setio egoera bateraino, horixe da eskubidea.

Eskubidea: joan eta jin, erosi, saldu, trukatu.

Legea: aduana, zerga, muga.

Eskubidea: doako eta derrigorrezko hezkuntza, haurraren oraino umekia den gizakiaren kontzientzian sartzekeriarik egin gabe, esan nahi baita hezkuntza laikoa.

Legea: "ignorantis" izenarekin Frantzian dagoen multzo erlijiosoa.

Eskubidea: sineste librea.

Legea: Estatuaren erlijioak.

Hautespen unibertsala, tribunal unibertsala, eskubidea da; hautespen murriztua, tribunal berezia, legea da.

Epaitutako kontua, legea da; justizia, eskubidea da.

Neur ezazue aldea.


Uraren handitze, higitze, zabaltze eta anarkiko izate hori dauka legeak, ikaratu egiten du maiz; baina eskubidea hondoragaitza da. Den guztia salba dadin, aski da eskubideak igeri egitea kontzientzia batean.

Ezin da Jainkoa irentsi.

Eskubidearen seta legearen egoskorkeriaren aurka, hortik dator harrabots sozial guztia.”

1873

Victor Hugo, E.
Carjatek egina.
MHV©PMVP



Marius pertsonaiaren erreakzioak azaldu eta aztertzean, bere bereizkuntzaren izaera iraultzailea ikusi zuen Hugok, eta etorkizunerako bidea finkatu zuen; Mariusek ez ditu oraindik aurrerakuntza guztiak garatu. Puntu honetan, iragarpena errealitate bihurtzen da. Ordurarte juridikoki bebesezina ikusten zen “zuzenbidea” eta “legea”ren arteko desberdintasuna zenbait prozesutan inplizituki erabili zen, Nuremberg-ekoan esaterako. Nazioarteko Epaitegi Penalaren ekintzak eta baita gizalegezko desobedientziaren kontzeptua ere Victor Hugok nahi izan zituen aurrerakuntzak izan ziren.

ESKUBIDEA ETA LEGEA

Urrikalgarriak, Bostgarren zatia, 7. liburukia, 2. atala:
«Argitze batek ekartzen ahal dituen Ilunpeak».

“Marius beti zetorren, edozein ideia-zirkulutan itzulika zebilelarik ere, Jean Valjean-enganako ikara batera. Ikara sakratua menturaz, zeren, aipatua dugun gisan, atzematen baitzuen halako quid divinum bat gizon honengan. Baina, ahaleginak eginagatik, eta barkakizunak bilatzen zizkion arren, beti erortzen zen betikoan: galeriano bat zen; alegia, mailadi sozialean lekurik ez daukan izakia, azken mailatik beheiti zegoena. Azken gizonaren ondotik zetorren galerianoa. Nolabait esateko, galerianoa ez da bizidunen hurkoa. Gizaki bati kentzen ahal zaion gizatasun kopururik handiena kendu dio legeak. Mariusek, nahiz demokrata izan, sistema inexorablea onartzen zuen arazo penaletan, eta bere egiten zituen legearen ideia guztiak legeak jotzen zituenekeko. Oraindik burutu gabea zen, esan dezagun, aitzinatze guztiak. Oraindik ez zuen bereizten gizakiak idatzitakoa eta Jainkoak idatzitakoa, legea eta eskubidea. Ez zuen ezertxo ere azertu eta haztatu aldaezinaz eta atzerazezinaz baliatzeko gizakiak hartzen duen eskubidea. Mendeku hitzak ez zuen sutzen. Halabeharra iruditzen zitzaion lege idatziaren infrakzio batzuk zigor eternalez ordaindu behar izatea, eta onartu egiten zuen, zibilizaziozko prozedura gisa, kondena soziala. Horretan zegoen oraindik, ez ordea gerora ez aitzinatze, berezko ontasuna baitzuen, eta funtsean progresorearen egitateak oro zituen bozkario.

Ideia zirkulu horretan, putrus eta nardagarri ageri zitzaion Jean Valjean. Gaitzetsia zen. Galerianoa zen. Jujamenduaren turutaren hotsa bezalakoa zen hitz hau berarentzat; eta, Jean Valjeani buruz luzaz hausnartu ondoren, behakoa ukatzea izan zuen azken aierua. *Vade retro.*”